



Bernardo Atxaga, euskaltzain oso

ASTEASU ▶ Jose Irazu Garmendia euskaltzainaren sarrera ekitaldia egin zuten atzo Usarrabi kiroldegian

LEKUKOA ▶ Juan Mari Lekuona zenaren lekua hartuko du; Atxagagogoan izan zuen bere hitzaldian ▶ 4-5

LIZARTZA ▶

Etxeberriak «mehatxuak» jaso dituela salatu dute

«Galdeketa ilegala» egin ziotela azaldu du Askatasunak ▶ 5

LIZARTZA ▶



N. URBIZU

Bruquetasek eskuratu du XIX. Insalus Saria ▶ 6



Bernardo Atxaga, Andres Urrutia Euskaltzain buruaren eskutik idatzia jasotzen eta domina zintzilik duela. N. URBIZU

hitza

Harpidedunen
txokoa

HITZAKo harpidedunen artean **Astelehenean 16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatu diren pilota partiduetarako sarrerak zozkatu ditugu! Hauek dira irabazleak:



aspepelota.com

- ▶ Miren Sarasola Ugalde (Villabona)
- ▶ Maria Luisa Arrate Zubillaga (Ibarra)

Eugi - Zubieta
Galarza V - Nalda III

|||||

MTZ. DE IRUJO - BARRIOLA
GONZALEZ - GOÑI III

|||||

Baleztena - Apeztegia
Alzugarai - Auxkin

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Euskaltzain berriari begira



Gogoa dut oraindik, behin Arantxa Iturbe Euskadi Irratiko kazetariak esandakoa. Artean ikasle nintzen eta Iturbe, irratia esatariei buruzko hitzaldi bat ematera etorri zen unibertsitatera. Ehun bat ikasleren aurrean aritu zen bere eguneroko lanaren azalpenak ematen. Ile luzea zuen garai

hartan. Ongi akordatzan naiz melena alde batetik bestera harrotzen zuen bitartean Arantxa kazetariak botatakoa. Sarritan gertatzen zitzaion zerbait zela aitortu zigun; elkarrizketatua aurrean zutenean, Jaimek (Otamendik) politika eta aktualitateari lotutako galderak egiten zituen. Arantxari ordea, pentsamenduak beste norabaitera alde egiten zion, gonbidatuaren alde humano baten bila, alde gizatiarra interesatzen zitzaion. Zer nolakoa ote zen begi aurrean zuen gizonaren eguneroko bizimodua, esaterako, ... Nola moldatzen ote zen

seme alabekin, eskolara eramateko astirik ba ote zuen, ... edo besterik gabe zer gosaldu zuen goiz hartan bertan.

Iturberi pasatzen zitzaion gauza bera pasatzen zait niri ere maiz. Eta azkena, oso urrutira joan gabe, atzo bertan sentitu nuen, Euskaltzaindiaren ekitaldi batean.

Bernardo Atxagak sarrera-hitzaldia eman zuen bere jaioterrian, Asteasun, Euskaltzain berri izendatu dutela eta. Hantxe zen herriko kiroldegian, jende andanaren aurrean. Senitartekoak, la-

gunak, herritarrek, Euskaltzainak, eta kazetariak, denak Bernardo Atxagari begira. Ez zen kokildu hala ere Atxaga. Jakina, Narratiba Sari Nazionala, Kritika Saria eta Euskadi Sariak besteak beste, irabaziak dituen batek jakinen al du fobia horri aurre egiten! Baina nola ote zegoen Joxe Irazu? Burutazio horixe izan nuen Joxe Irazu asteasuarrari begiratu-ta. Nolako gaua pasa ote zuen? Goiz hartan bertan ere gosaltzeko betarik hartu ote zuen ala eman behar zuen hitzaldia errepasatzen pasa ote zituen azken minutuak?

Galdera zerrenda luzea etorri zitzaidan bapatean, baina nere lagunak dioten bezala, «galderak dira errazak, erantzunak zailak».

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

EZBAIAN ▶ Astebete eskas geratzen da Korrikako 15. edizioak bere lehen kilometroak egiteko; Bi astez euskara oinetatik Euskal Herriko txoko guztietara barreiatuko dute euskaltzaleek; Baliogarri al dira Korrika bezalako ekimenak normalizaziorako?

LURDES GOROSTEGI (TOLOSALDEKO KORRIKA 15EKO ARDURADUNA) ▶

Eskerrik asko Korrika 15

Korrika 15ek euskal emakumea omenduko du, euskal emakumeak gure hizkuntzaren transmisioan izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraiatu nahi izan duelako. Bazen garaia euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, maitatzen erakutsi diguzuen ama, amona eta emakume guzti horiei hain beharrezko zenuten omenaldia egiteko.

Euskararen erakusten, egunegun, euskaltegietan ari zaretenoi, berriz, eskerrik asko. Eta eskerrik asko euskara ikasten ari zaretenoi ere, jakina.

Euskaraz hitz eginez eta irakatsiz egiten dugu Euskal Herria. Horregatik, Korrika 15 antolatzen ari zareten Korrika Batzordeko deoi esker lortuko dugu omenaldi hori egiazko bihurtzea. Eskerrik asko zuei ere!

Eta zuk, irakurle, Korrika 15i eskerrak emateko asmoa baduzu, oraindik garaiz zabilzta. Erakutsi zure atxikimendua Korrika 15i, martxoaren 24an, goizeko 10ak aldean, Tolosaldean ibiliko baita geratu gabe. Beraz, heldu lekukoari, heldu hitzari, heldu euskarari eta heldu elkarlanari 30350072020720005710 kontuan zure ekarpena eginez.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Ikastolak ere helduko dio Korrikari

A prinde birramonak, pega ai birramonak, cógelo aitonak, hold it amonak, aítak, prend amak... Eta haurrak? EUSKARAZ. Horretan ari gara Laskorain ikastolan azken 40 urte hauetan.

Astebete barru gure artera helduko da Korrikaren 15. ekitaldia. Karrantzatik Iruñe-

ra 24an igaroko da Tolosan barna. Eta egun hori Laskorain ikastolak bere ibilbidearen 40. urteurrenean, sortze unetik bere-berea izan duen euskararen aldeko konpromisoari eusteko eta indarberiturik heltzeko erabili nahi luke.

Kantu eta irrintzi artean ttipi-ttapa Tolosako kaleak zeharkatzeak guztiok hitzari, euskaraz den hitzari, heltzeko dugun adorea, ilusioa eta nahia itxuratu behar litzuzke. Horregatik egiten dizuegu

dei, ikastolak erosi duen kilometroan partaide izan zaitezten guraso, ikasle ohi, ikasle eta irakasle.

Bestalde, Laskorain ikastolako kideok Korrika Txikia antolatze lanetan ere murgilduta gaude. Korrika txikia deritzan honetan, ikastolako ikasle guzti-guztiek hartuko dute parte eta hauekin batera irakasleek. Ekimen hau eskola egunetan burutzen denez, 23rako, ostirala, antolatuta da. Egun horretan, arratsaldeko 15:15ean Zerkausion elkartu-

ko gárela jakinarazi nahi dizuegu eta bertan parte hartzera animatu. San Frantziskon gora Berazubira eta handik Usabalera egingo dugun ibilaldian.

*Zatoz gurekin!
Heldu nire eskuari,
luzatu zurea ondokoari,
lagundu urkoari,
oratu lekukoari,
iraun korrika,
Eutsi Euskaraz bizitzeko ilusioari.*

HELENA BARAIBAR ▶ LASKORAIN
IKASTOLAREN IZENEAN

ESANA ▶



JOXEMARI ITURRALDE ▶ IDAZLEA

«Pertsona bakoitza mundu oso bat da, bere duintasanarekin bai eta bere istorio mordoarekin ere»

«Kalean inoiz entzun gabeko hitzik ez dut erabiltzen liburuetan. Nire ezagarrrietako bat da hori»

«Nik asko gozatzen dut idazten dudan bitartean eta horregatik gustatzen zait mantso joatea, ikerketa egitea»

HERRITAR BAT ▶

'IRAKURLEEN TXOKOA' ▶ WEBGUNEA

Zubiagarekin elkartasuna

Gutun honen bitartez, Leioako EHUko zientzia politikotako 2. mailako euskarazko ikasle guztiok, gure maitasuna eta elkartasuna adierazi nahi diegu 18/98 sumarioan auziperatuta daudenei eta bereziki gure irakaslea den Mario Zubiagari.

Gure gela, iritzi askotariko eta ideologia anitzeko ikasleok osatzen dugu, baina desberdintasunen gainetik, eskubide zibil eta politikoaren urraketa argia suposatzen duen prozesu hau eta gure segurtasuna eta bakean bizitzeko daukagun eskubidea kinka larrian jartzen dituzten sumario eta epaiketa guztiak etetzea eskatzen diogu Espainiako gobernuari.

EHU-KO ZIENTZIA POLITIKAKOTAKO
2. MAILAKO IKASLEAK ▶ (LEIOA)

Kale zikinak

Azken aldi honetan, nahiz eta ia aspalditik izan, Tolosako kaleetan ibiltzeko ikaragarriko begi pila behar izaten dira, Zergaitik?... Arazoa txakur kakak dira. Zera esan nahi nuke: Txakur jabeek inongo lotsarik ez dutela, eta txakurrari bere eginbeharrak nahi duen lekuan egiten uzten diotela eta ez dira konturatzen kalea denena dela eta errespetu pixkat edukitzea eskatuko nieke eta mesede txakurkak kaka egiten duenean garbitu dezatela eta ez jabe askok eta askok egiten duten bezela ezer gertatu izan ez balitz bezala paso egitea. Askí da. Mesedez, kaleak txukun mantendu!

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetan
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Ingeniaritza
IMH Ingeniaritza Eskola

11:30am

24

11:30am

IMH Ingeniaritza Eskola

ASTEASU ▶ KULTURA



Antzarraren hegladia

Euskaltzain osoa izendatu dute Bernardo Atxaga idazlea Asteasuako kiroldegian, euskaltzainez, herritarrez eta lagunez inguratuta: Jose Irazu Garmendia gizona

NEREA URIBIZU

Asteasuako antzarak izan zituen gogoran Bernardo Atxagak, euskaltzain jaun txiki prestuaren ekitaldian atzo, Antzarak, zenbakiak eta hitzak testuarekin. Sarrera-ekitaldiko testu hau irakurri ondoren, Xabier Kintana euskaltzain eta idazkariak Ekintzailearen laudorioarekin ederki asko erantzun zion.

Jose Irazu edo Jose-Bernardo, Bernardo-Jose bezala izendatu zuten Xabier Kintanak. Asteasuako euskarekin irakurri zuten prestatutako testu lan-dua. Antzarak horrek jatorriko hainbat baserrietan jarri eta pertsonaia bereziak gogoratu zituen. Pedro Mari Oñate, edota Antonio Arrue Apalazagastiaren gainean jarrita. Euskarekin egotera eta ideologia politikoez aritu zen antzara urduri eta geldiezin baten ikuspegitik; azken batean, Atxagaren begietatik. Gogoratu eta aipatu zituen, bestearen artean, idazlearen artean, Xabier Lizardi, Auzilar, Gabriel Aresti, Antonio

Arrue... Arestiren eta Arrueren arteko desberdintasun politiko nabariak izan baziren ere, euskarekin aile horriokatu edo babestu egin zuten. Gure antzarak ez daki asko ideologia politikoen gorabeherekin, baina ideologia politikoa hizkuntza baten aurrera edo atzerabidean duen garrantzia handia, hori buruzten saio saltoa egitearekin batera.

«Antzara honi beste pentsamendu bat bururatu zituzten: ideologia politikoa estu-estutik hartzen badu hizkuntza, normalean txarrekako izaten daela», gogora ekarri zituen Atxagak, XX. mendeko hasierako purismoa. Honek, Atxagaren hitzetan, kanizatu egin zuten lan literarioa.

Bukatzeko, euskarekin etorkizunaz aritu zen, kezkatik: «Gure hizkuntza ideologia politikoa baino zerbitz gela eta harko da gure hizkuntza eta gure kultura aurrera ateratzeko. Baina, duela 65 urte ere, Asteasun pintura lehiaketa antolatzen zuten eta *Egin euskara!* idatzi behar zen marrazkian.

Beraz, garai hartan ere arazoak zegoen: «Historia bera beti». Baina, «ez nuke esango sentala txarra denik. Ez zait inportatzen kristian dagoen hizkuntza bat izatea baldin eta krisi horiek 9.000 urte irauten badu. Hobeto kristian papagaioren moioan baino». Izan ere, papagaio horiek, 100 urte lehenago desagerturiko hizkuntzaleko hitzekin egiten omen zuten hots, Chateaubrianden memorietan idatzi bezala.

Atxaga, idazlea eta pertsona

Ivan Mari Lekuona zenaren domina hartu zuten Atxagak atzo, eta bere esker ona Euskaltzaindiari eman zion, «poz hori emateagatik». Xabier Kintanak Ekintzailearen laudorioa irakurri zuen, «Atxagaz hitz egiteko orduan, Euskaltzaindiako atezain sentimena mila esker, eta omentzena handi hori eteko sarrera ohorez eta lotsaz umilki irakurtzeko gertu».

Idazlearen bizitzaz aritu zen, eta haren familia, era horbil eta hungikigarrian. Euskarari buruz ere aritu zen: «Ongi da gobernuak euskarekin aldeko legeak eta neurriak ateratzea, baina legeak ez dira nahikoa izango euskarak irau dezana». Ondoren, Omarki dantza taldekoek Agurra dantzatu zuten, Hariz Mujikak 3 bertso eskaini zituzten. *Sonujolearen semea* liburuko irakurketa bat, Iñaki Amenabar alkateak makila eman zion eta haurren bi kantu ere izan ziren.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Espainiako poliziak Etxeberria «mehatxatu» duela salatuta

«Ilegalki galdeketa izan zen bidaiari», Askatasunak adierazi duenez

EREDAKZIOA

Garikolte Etxeberria lizartzarra «mehatxatu» eta ilegalki galdeketa izan zela salatu du Askatasunak, herenegun Frantziako polizia-erakundearen eskutik zuzenean Espainiako polizia-erakundera entregatu zituenera.

Garikolte Etxeberria gizeko 09/30ean Lussoko (Frantzia) espetxetik atera zuten herenegun. Asier Larriaga-ekin batera, «euskarak eta hankak loturik». Egoera horretan eraman zituzten Behobiarako Frantziako poliziak eta han, Espainiako polizia-erakundera entregatu zituztela bi presoak Irungo komisaldegira eraman zituzten ondoren, beren

eskubideak irakurri eta fitxa egin zuten bertan. Familiarekin telefonoz hitz egin zuten orduan. Sendiak orduan jakin zuten erabakiaren berri.

14.00etan Madrilerantz abiatu ziren. Askatasunak salatu duenez, bidaiari zehar, «poliziak galdeketa ilegala egin zituzten eta baita mehatxatu ere». Adibidez, «bidaiari mota ala geldialdiekin bidaiatzen zirela».

19.00ak aldera Juan del Olmo epailearen aurrera eraman zituzten eta epaileak espetxeratzea «bateri» zuten, behin behineko espetxealdi komunikatua. Sumarioa erekretuegan da eta hurrengo astean deklaratzera eraman-

go dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalean. Hala, Lehen-dabuzko aldia da Frantziak, uesteko bi etakide Espainiaren esku uzteko («salaketa ofizialaren» formula balaitzen duela; hau da, beste Frantziatik egin dituzten delituengatik epaitzari uko egin eta Espainiaren esku utzi du atxakotako lekuan egitiko delituen epaketa).

Bi gazteak iragan urtarrian San, Azkenen (Lapurdi), abditu zituen Frantziako Poliziak. Muret-Seyseseko espetxean izan dituzte orain arte. Pasuko Auzitegiak onartzen eman zituen Espainiarantzako eskaerak, eta defentsaren helegitea atzera bota zuten gero.

berria euskarazko zinemarekin

MARTXOAREN 24an

MARTXOAREN 31n

+ 6,95€

Harpidedunentzat, %20 merkeago bi DVDak 11 euro

Eskaera egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, 943 30 43 45 telefonora deitu edo www.berria.info izena eman.

berria

Deusto Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitatea Ordizian

Etor zaitez gu ezagutzera

ESTE-ESIDE, Titulazio Bikoitza: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizenziatura eta Kudeaketako Informazioa Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)

ESTE, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizenziatura (5 urte)

Especialitateko Masterra

Giza Zientzietako Lizenziatura: Komunikazioa, HUCCO (4 urte)

Iziza Zientzietako Lizenziatura: Enpresa, HUEM (4 urte)

Turismoko Diplomatura (3 urte)

Igizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

Informazio saioa (Mesedez baieztatuz)

Egunak: martxoak 21, asteazkena

Tokua: Barrena Kultur Etxea, Nikolas Lekuona Plaza z/g, Ordizia

Orekin: 19etatik-20etara.

2007-2008 ikasturterako Sarrera Etsakerak aurkitzeko espaz zabalk

943 326 308 - 943 326 600

e-mail: infoacad@ud-sv.deusto.es

www.infodostia.deusto.es

IRURA PROMOSIO BERRIA

3 egoketi, egongela, sukaldaria, 2 berdegela, bermea ederra, trankilizante eta garapen asereri.

Informazioa eta salmenta: DRAVAIA - San Frantzisko, 14 - Tolosa
Tel. 943 95 25 81 - 475 79 99 10

IBARRA ▶ POLITIKA



Ekainerako prest ezker abertzalea

E. Ezeiza ▶ Ibarako ezker abertzaleko kideak nahiz berarekin bat egiten duten herritarak bildu ziren atzo «alderdiaren irudi koloretsu eta indartsua» adierazteko eta aldarrikatzeko. Ezker abertzalekoek argazki honekin erakutsi nahi dute hauteskundeetarako lanean ari direla eta herriko eragile, talde eta jendartearekin hitz egiten ari direla, «herria denen artean eraiki ahal izateko». E. EZEIZA

AZOKA ▶

Produktu berri ugari ikusi ahal izan ziren atzoko azokan

Udaberriaren etorrera nabaritu zen, Zerkausiko salmenta postuetan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka oso animatua suertatu zen, batez ere eskaintzaren aldetik. Nobedade asko ikusi genituen, gehienak oso desiratuak. Aurtengo lehenengo ilarrak 12 eurotan, patata berria 1,5 eurotan, edo zainzuriak 15 euro kiloko salduak. Zizak ere izan ziren; 2 kilo 150 kiloko salduak.

Berdura plazan ikusitako zerrenda ere ez zen makala izan. Apaingarriko landareen postuetan udaberria iritsi zen. Aurtengo lehenengo geranioak, geranio hiedra, alegriak edo eta begoniak saldu ziren, eta dirudienez, datozen asteetan eskaintza gora egingo du.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Salbia	1,00	1,20
Alegria	1,20	-
Gerbera	12,00	-
Begonia	1,20	-

Bertako produktuak

Kiwia	3,00	-
Urta	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Ziazerba	1,00	1,50
Porrua	1,00	10,00
Arrautzak	1,30	2,10
Azalorea	1,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Baraburria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00

Belta. Internet bidez albisteak irakurtzen dituzunean, hauei buruzko iritzia idazteko aukera izango duzu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean. Ondoren, orrialde honetara sartzen diren irakurle guztiak irakurri ahal izango dituztelarik.

LIZARTZA ▶ TXIRRINDULARITZA

Bruquetasentzat izan da XIX. Insalus Saria

Atzoko lasterketaren ondoren, Eibar -Debabarreba taldeko Beñat Urain da Lehendakari Txapelketako lider berria

ESTI EZEIZA

Carlos Bruquetasek irabazi zuen atzo aurtengo Insalus Saria. 102 txirrindulari lehiatu ziren Otsabio Elkarteak antolatutako XIX. Insalus Sarian. Bigarren postuan Beñat Urain geratu zen, eta hirugarrenean, Hijinio Fernandez. Hasiera-hasieratik lasterketa borrokatua izan zen, eta gogor aritu behar izan zuten lasterkariak Leaburu eta Altzoko aldapak igotzeko.

Talde txikitari banatuta joan ziren txirrindulariak, eta azken kilometroetan hiru lehendabizikoak elkarren parean joan ziren. Azken esprinean gogor borrokatu zuten Carlos Bruquetas, Hijinio Fernandez eta



Lehendabiziko hirurek sprintean amaitu zuten proba. N. URBIZU

Beñat Urainek, baina lehendabizikoa nagusitu zen. Tropel nagusiak berriz ikuskizun aparta eskaini zuen.

Txirrindulari afizionatuen proba hau Lehendakari Txapelketarako puntuagarri da.

Hala, atzoko probaren ondoren Beñat Urain da Lehendakari Txapelketako lider berria. Hau txapelketako bigarren proba izan da, eta oraindik beste ha-

SAILKAPENA ▶

XIX. Insalus Saria

1. Carlos Bruquetas (Seedback sportwirth)
2. Hijinio Fernandez (Seedback sportwirth)
3. Beñat Urain (Eibar-Debabarrena)

Taldea onenaren Saria

Seedback sportwirth.

Mendiko Saria

Beñat Urain (Eibar-Debabarrena).

Lehendakari Txapelketa

1. Beñat Urain (Eibar-Debabarrena).

mabost geratzen dira azken irabazlea nor den erabakitze-ko.

Atzoko proban 107 kilometro egin behar izan zituzten lasterkariak Tolosaldea eta Goierriko herrietatik barrena. Ospe handiko karrera da Lizartzakoa. Datuen arabera, Insalus Saria irabazten duenak, hurrengo urtean profesionaletarako saltoa eman ohi du. Maila honetarako lan gogorra egin behar izan dute Otxabio Kirol Elkarteak kideak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Arratsaldetan adineko pertsonak zaintzeko esperientziadun emakume euskalduna eskaintzen da. Telefonoa: 670 06 60 96.

Zaintzailea. Emakumea behar da haur bat zaindu eta ebeko lanak egiteko goizez. Interesatuak deitu 943 69 82 73ra edo 679 82 00 84ra.

Ile-apaintzailea. Ibarako L.M. ile-apaindegiak lengilea behar du. Interesatuak deitu 943 67 03 43ra.

Sukaldaria. Asteburuetarako

sukaldaria behar da. Telefono zenbakia: 615 78 90 06.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

Harreragileak. Udalekxetarako harreragileak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

Garbiketa. Mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritzak langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. 943 29 82 32.

Suhiltzaileak. Basozainak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. Telefonoa: 943 32 66 63.

Hezkuntza. Eusko Jaurlaritza. Berehalako deialdi. 1.172 lanpostu gorpuz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitez: 943 32 66 63.

ESKUALDATZEA

Lorandena. Erretiroagatik, lorandena eskualdatzen dut material

eta guzti, Lasarten. Kokapen ezin hobea. Baldintza interesgarriak. 626 10 56 89.

GALDUTAKOAK

Patinetea. Patinete bat aurkitu dut lurre auzoan. 943 11 78 42.

SALGAI

Etxebizitza. Iruran, eraikuntza berriko azken apartamentua s algai. Giltzak 2008an. Agentziarik ez. Interesatuak deitu 609 47 30 81 telefonora.

JOXAN OIZ ▶ IDAZLEA

«Etxepareren benetako balioak zabaltzeko modu bat izan daiteke»

Joseba Jaka V. Literatur Beka irabazi ondoren, Joxan Oizek 'Beñat Dardo', euskarazko lehendabiziko liburu egilearen fikziozko biografia idatzi du



E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Donostian jaioa bada ere, urte askotan Tolosan bizi da Joxan Oiz (Donostia, 1969). Irakasle bada ere, saiakera ugari egin ditu literaturan. 2005ean Joseba Jaka V. Literatur beka irabazi zuen, eta honek emandako aukerari esker *Beñat dardo* liburu argitaratu du. Hala, Bernart Etxepare, lehen euskal liburu argitaratu zuen hura bera da Oizen lehen eleberriarren protagonista.

Joseba Jaka literatur saria irabaztearen fruitu da liburu hau. Zertan datza?

Literatur beka bat da non diru kopuru bat ematen dizuten eta urte baten barruan liburu bat idatzi behar duzu. Bekara 20 orriko lagin bat aurkeztu nuen eta hau gustatu zitzaizenez aukeratu zuten. Azken batean saria da, zerbait argitaratzeko erraztasuna ematen dizutela.

Zer moduzko harrera izan du orain arte?

Durangon-eta ongi, datuen arabera uste baino gehiago saldu zela esan zidaten. Elkarrekoen 10 salduenen artean egon omen zen. Bestetik, inguruko jendeak eta ezagutzen nauenak ere ongi dagoela

BERNART ETXEPARE

«Pertsonaia oso berezia zen eta oso erabilia izan da; bestalde, bera izan zen euskarazko lehen liburuaren egilea»

esan didate. Nire helburu nagusia zerbait txukuna argitaratzea zen.

Zergatik aukeratu duzu Bernart Etxepare?

Euskal filologia ikasi nuen, eta han ikasi nuenaren arabera Etxepare oso pertsonaia berezia zen. Bestalde, oso erabilia izan dira bere esamolde eta bukaerako oharrak. Bera da ere euskarazko lehendabiziko liburuaren egilea. Beraz, soziolinguista bezala eta euskararen normalizazioagatik egingadako lanagatik ere aukeratu nuen. Bestetik, ikuspegi egozentrista batetik, euskara beste hizkuntzen mailan jarri nahi zuten. Bere bizitzaz ere gehiegi ez dakigu: jauntxo familia batetik etorria, apaiza zela, euskalzalea, Nafarroako konkistaren garaian Gaztelaren aldekoa, kartzelan egondakoa... Bere bertso gehienak erlijiosoa

HIPOTESIA

«Euskalzalea izan arren, Nafarroako konkistan gaztelarren alde jarri zen, horregatik sartu zuten kartzelan»

dira, beste batzuk maitasunekoak edo erotikokoak, eta azkenik, euskararen aldekoak. Hala, bertso batzuetan irudi nahiko erotikoko deskribatzen ditu eta apaiza izanda oso arraroa da.

Haren bizitzaren inguruko zenbait hipotesi egiten dituzu.

Bera teoriar euskalzalea izanda, eta politikoki zuzena, nafarroaren konkistan gaztelarren alde jarri zela esaten dut nik, eta ez nafarren alde. Horregatik sartu zuten kartzelan eta ez idatzitako bertsoengatik. Datuen arabera, gaztelarren konfidente izan zela dirudi.

Etxepareren fikziozko biografia da.

Abiapuntu bezala datu gutxi baina interesgarri batzuk hartuta, fikziozko istorio bat kontatzen dut. Istorio nagusia izango litzateke, nola Bernart Etxepa-

DOKUMENTAZIOA

«Nire lehendabiziko liburu izanda, kezka handia izan nuen garai hartan nola hitz egiten zen-eta aztertzen»

rek, lan handiaren ondoren bere liburu argitaratzea lortzen duen. Idatzi dudana dena egia da, baina jendea askok, benetakoak diren gauza horiek zeintzuk diren ez ditu jakingo.

Zerk eman dizu lan gehien, dokumentatzeak edo idazteak?

Dokumentatzeak eta nire bu-

rua janzteak eman dit lan gehien. Nire lehenengo liburu izanda eta, kezka handia nuen garai horretan nola hitz egiten zen eta ongi jartzeak. Ia urte osoa igaro dut garai hartako musika, janaria, janzkera, politika eta abarrez informatzen. Hasieran, idazten hasten nintzen eta hainbat zalantza sortzen zitzaizkidan, horregatik horduko giroaz erabat jantzita negoela ikusi nuenean hasi nintzen idazten. Hala, Etxepare hitz egiten duenean bere hizkera erabiltzen dut.

Jendeari istoria gerturatzeko modu bat izan al daiteke?

Etxepareren benetako balioak zabaltzeko modu bat behintzat izan daiteke. Hau da, euskara inprimatzen ez bazen galdu egingo zela, eta honen normalizaziorako beharrezkoa zela.

Zergatik ipini duzu izenburu bezala Beñat Dardo?

Etxepare hiru Dardo dauzka. Alde batetik Etxepare jauntxoa, prosaikoak, lurrak eta emakumeak kezka nagusi dituen. Bestetik dardoak, sexu instrumentua dena. Hitz hau erabiltzen du emakumei buruzko bertsoetan. Azkenik, eta garrantzitsuen dena, euskarazko liburu argitaratzeko ahalegina.

Euskararen gaur egungo egoera ikusita, zer esango luke Etxeparek?

Haserre handi samarra hartuko luke. Etxeparek *Euskara, jalgiri hadi plazara* esan zuen; eremu guztietara zabal zedin, alegia. Eta ez da hori gertatzen ari. Tolosan orain sekulako kiroldegi ederra dugu, baina hango tabernan, Bar/Restaurante jarri dute kartelean, gaztelania hutsez. Hori ikusita, nola esango diegu gazteei euskaraz egin behar dutela? Zer eredu mota da hori? Hizkuntzarekiko sentsibilitate eza ikaragarria dago. Nire ustez, sentsibilitate falta dutenei ezin zaie merke ateratzen. Euskararekiko interesa piztu behar dugu jende horrengan, eta adibidez, jatetxe batean, han bazkaltzeko asmoa genuela baina menua erdara hutsez idatzita ikusitakoan alde egitea erabaki dugula esanda piz daiteke interesa...

ZENBAIT DATU ▶

Izenburua. 'Beñat Dardo'.
Egilea. Joxan Oiz.
Argitaletxea. Susa
Prezioa. 13,46 euro.
Orri kopurua. 185.
Generoa. Eleberrirrealista.
Oharra. Joseba Jaka V. Literatur Bekako saria irabazi ondoren argitaratu du liburu hau Oizek.



